

ETXEKO INDARKERIAREN BANAKETA ETA ERREGISTRO INFORMATIKO ARAUEI BURUZKO 2003ko APIRILAREN 9ko BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO 3/2003 INSTRUKZIOA.¹

Parlamentuak, zigor-arloko prozesuen bideratzea azkartzeko helburuaz, Prozedura Kriminalaren Legeko erreforma partzialaren urriak 24ko 38/2002 Legea onartu zuen, berau, delitu eta falta zehatz batzuen judiziamendu azkar eta berehalakoaren prozedura eta prozedura laburtuaren aldatetari buruzkoa. Bere Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 4. atalean ondorengo hau xedatzen du: "sei hilabeteko epean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, judizioen egunak jartzeko antolaketa eta guardia-zerbitzuen garapenerako, Prozedura Kriminalaren Legeko 769.2, 800.3, 962.4 eta 965.2 artikuluek finkatzen dituzten Erregelamenduak emango ditu".

Aurreko aurreikuspena garatuz eta 2003ko otsailak 26 data duen Akordio bidez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkurak jardun judizialen alderdi osagarriari buruzko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamendua aldatu zuen, guardia-zerbitzuei dagokiona. Aipatutako Erregelamenduen 47.6 artikulua, ondorengo hau xedatzen du: "Gobernu Salek eta Epaileen Batzarrek, hauen ohizko eskurantzaren jardutean eta Erregelamendu honek ezarritakoari lotuak, gaien banaketa, barne-jarduera, ordezte-koadroko edo beraien eskumeneko beste arlo batzuen barruan egokitzen ematen dituzten arau-osagarriak onetsi ahal izango dituzte". Halaber, aipatutako Akordioaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak ondorengo hau xedatzen du: "Epaileen Batzarrek eta Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Salek banaketa-arauek Erregelamendu honek ezarritakora egokituko dituzte, hauen edukiak guardiako Epaitegietan judizio azkar eta falten berehalako judiziamenduen bideratzea baimentzeko helburuaz".

Instrukzio honek Prozedura Kriminalaren Legeko erreforma partzialaren urriak 24ko 38/2002 Legeak aurreikusitako delituagatik egiten den judizio azkar eta falten berehalako judiziamenduen aplikazioa erraztera zuzendutako irizpide batzuk ditu, ekainak 7ko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko 5/1995 Erregelamenduan dagoen guardia-zerbitzuen erregulazioan osagarri gisa balio dutenak. Irizpide hauek, Epaileen Batzarrengatik eta Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Salengatik begietsiak izan behar dute, aipatutako Lege eta guardia-zerbitzuen erregelamenduzko xedapen erregulatzailerekin adierazitakoarekin bat, banaketa-arauek egokitzeko duten betebeharra burutzean.

Bestalde, Instrukzio hau ere delituagatik egiten den judizio azkarren prozeduraren bideratzea posible ez deneko kasu haiei buruzkoa da, bereziki, Zigor Kodeko 153. artikuluan ohizkoak diren indarkeria fisiko edo psikiko kasuetan. Kasu hauetan, komenigarria da subjektu berdin batek, familia-nukleo berdineko kideen aurka egindako arau-hauste penalen prozesuen ezagutzarako eskumena Epaitegi berdinean biltzea, 2001eko martxoak 21eko Osoko Bilkurak onartutako Etxeko Indarkeriari buruzko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Txostenak esaten zuenaren zentzu berdinean. Aipatutako txostena osatzen duen Familia Indarkeriaren aurkako Jokabidearen Gida Praktikoak ondorengo hau baieztatzen du: "Epaitegi espezializatu baten gabezia eta duen egoera prozesala edozein izanik ere, subjektu berdin batek familia-nukleo berdineko kideen aurka aurretik burututako eraso kasua lehenik ezagutu zuen Epaitegiari zuzendu ahal izateko, kompetentzia hau esleituko duten banaketa-arauen baieztapena eskuratu beharra dago.

¹ 2003ko apirilaren 15 egunari dagokion 90. zenbakidun "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratua.

Instrukzio honen edukiak, Etxeko Indarkeriaren Behatokiko lanen emaitzak oso kontutan hartu ditu, berau, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak 2002ko irailak 26 egunean sinatutako Hitzarmenaren bitartez osatua eta hauen lehen bileran, gaiaren gainean aholkulari Aditu Talde bat sortzeko erabakia hartu zutenak.

Behatokiak, etxeko indarkeriari buruzko gaien banaketa-arauek gainean Epailen Batzar ezberdinen akordioak bildu ditu, Etxeko Indarkeriaren aurkako Jokabidearen Gida Praktikoak ezarritako irizpideak jarraitzen dituzten arau zehatzak, soilik herrialde batzuetan hartu direla adieraziz. Era berean, hauek existitzen diren lekuetan, horren konplexua den errealitate bati erantzuna emateko bere edukia maiz eskasa dela adierazten da. Ikuspegi hain heterogeneo honen barruan, 2001eko martxoak 21eko Osoko Bilkurak onetsitako Etxeko Indarkeriari buruzko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Txostenak baieztatzen duen moduan, "delitua den fenomeno honi aurre egiteko banaketa-arau eraginkorren onarpena" ahalbidetzen duen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Instrukzio bat beharrezkotzat ematen da.

Azkenik, Instrukzio honek, etxeko indarkeria gertaerengatik ematen den zigor-arloko prozesua optimizatzeko beharrezko xedapen batzuk ditu, bai bere hasiera momentuan beharrezko informatika aplikazioaren bitartez prozeduraren erregistroarekin zerikusia dutenak, nahiz eta Dekanotza bakoitzean, Etxeko Indarkeria Erregistro Informatizatu baten ezarpenari buruzkoak ere. Neurri hauek, ez dira soilik ustiapen estatistikoentzat baliagarriak izango, gainera erasotzaile berdin baten aurka dauden beste zigor-arloko prozesu batzuen izatea era azkar eta berehalako batean organo judizialek ezagutzea baimenduko dute, modu honek, indarkeriaren ohizkotasunaren egiaztapena eta guardiako Epaitegiaren aldetik, biktimaren babeserako neurriak azkartasunez hartzea erraztuz. Hau, xedapen orokor bidez, esparru nazionalan eta etxeko indarkeria arloan, Neurri Erregistro baten etorkizuneko sorreraren aurreiritzirik gabe.

Honekin bat eta kontuan izanik Botere Judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 104.2 eta 12.3 artikuluetan ezarritakoa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkurak, 2003ko apirilaren 9 eguneko bere bileran, hurrengo Instrukzio hau onartzea erabaki du:

Lehenengo.- Banaketa-arauek egokitzapenerako epea.

Etxeko indarkeriaren arau-hauste penalei erantzun eraginkor bat emateko helburuaz, hala nola guardiako Epaitegietan delituagatik egiten diren judizio azkar eta faltan judiziamenduen tramitazioa errazteko asmoz, Epailen Batzarrek eta Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Salek, 2003ko apirilaren 28 eguna baino lehen, Instrukzio honetan xedatutakora egokitu beharko dituzte banaketa-arauak.

Prozedura Kriminalaren Legearen erreforma partzialaren Irailak 24ko 38/2002 Legea indarrean sartuz geroztik hile bateko epean, Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Salek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, xedapen honen aplikazioari buruz informatuko dute.

Bigarren.- Gai-erregistroa.

Zigor-Kodearen 153. artikulua dioen edozein pertsonaren aurka burututako delitu edo falta batengatik zigor-arloko edozein prozesu hasteko momentuan, prozeduraren erregistroa, dagokion kudeaketa prozesalaren aplikazio informatikoa erabiliz egin beharko da eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Informatika Judizialeko Batzordeak ezarritakoarekin adostasunez. Honek, instrukzio hau indarrean sartuz geroztik hiru hilabeteko epean, arlo honen irizpide erregistroa bateratu beharko du.

Hirugarren.- Gai-banaketari buruzko irizpideak.

Banaketa-arauek, Zigor-Kodearen 153. artikulua aipatzen duen edozein pertsonaren aurka delituagatik egiten diren prozesuen ezagutza, ondorengo irizpide hauen mendekotasunarekin esleitu beharko dute:

1. Prozedura Kriminalaren Legeko erreforma partzialaren urriak 24ko 38/2002 Legearekin adostasunez, delitu eta falta jakin batzuen judiziamendu azkar eta berehalakoarentzat eta laburtutako prozedimenduen aldatetakoari buruzkoa, Guardiako Epaitegia izango da Prozedura Kriminalaren Legeko IV. Liburuaren III. Izenburuko prozeduren tramitaziorako eta Lege berdinen 962.1, 965.2 eta 965.1, 2. artikuluen falta-judizioen gauzatzerako eskumena duena.

Aurreko irizpidearen aplikazioa posible ez den kasu haietan, Zigor Kodeko 153. artikuluan ezarritako edozein pertsonaren aurka zuzendutako egitate zigorgarriengatik, delitu, falta-judizio edo eta Prozedura Kriminalaren Legeko 774. artikuluan babesean dauden Prozedura Laburtuaren Aurretiazko Eginbide nahiz eta Lege

berdineko 798.2,1 artikularen babesean dauden Prozedura Arrunteko Sumario bati hasiera eman dioen Instrukzioko Epaitegiak, delitu edo faltagatik egile berdinari egotzi ahal zaizkion familia nukleo berdineko kideen aurka burututako egitateengatik geroago hasitako beste zigor-arloko prozesuak ere ezagutuko ditu eta hau, nahiz eta lehen prozesu horretan, artxibatze, largespen edo ahozko judizioa hastea erabakitzen duen autoa emanda edo kondena-epaia edota absoluzio-epaia emanda egonik ere.

Aurreko helburuetarako, Aurretiazko Eginbidea, falta-judizioa edo Prozedura arruntaren Sumarioa hasteko autoa ematen duen Instrukzio Epaitegiak, berau Banaketa-Bulegoaren ezagutzan jarriko du premiazko modu batean, azken honek dagokion bidezko nota hartuz, aurreko parrafoak jasotzen duen arauaren aplikazioan, egile berdinen aurkako gaiak, aurretik beste Instrukzio Epaitegi bati egotziak izan direnean salbu. Azken kasu honetan, Banaketa-Bulegoak berehala jakinaraziko dio Epaitegi hari, premiazko modu batean, beste honi igortzeko eta bere liburuetan, dagozkion oharpenak egingo ditu.

2.Epaitegi bakoitzak, aurreko atalean aplikazioz banatuak izan zaizkion gai haiei buruz, Prozedura Kriminalaren Legeko 300, 17 eta 18. artikuluen aplikazioagatik beharrezko diren zigor-arloko prozedurei hasiera emango die.

3.Guardiako Epaitegiak, jardun judizialen alderdi osagarrien Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduaren 40. artikuluen aplikazioagatik beharrezko diren ekintzak burutuko ditu eta bereziki, biktimaren babesa helburutzat dutenak. Prozedura Kriminalaren Legeko IV Liburuaren III. Izenburuko prozedimenduak ere bideratuko ditu, hala nola Lege berdineko 962.1, 964.2 eta 965.1,2. artikuluen falta-judizioak.

Laugarren.- Zortzi edo Instrukzio Epaitegi gehiagoko Barruti judizialean falta-judizioak

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduko 48, 53, 55 eta 57. artikuluetan aipatzen diren barruti judizialean, banaketa-arauek, Zigor-arloko Kodeko 617 edo 620. artikuluetako falten ezagutza esleitu beharko dituzte, beti ere, ofenditua, Kode berdineko 153. artikulua jasotako edozein pertsona izanik eta ondorengo irizpideen eraginpean egonik:

1.Prozedura Kriminalaren Legeko 962 edo 964. artikuluekin bat landutako atestatua, falten judiziamenduko guardia-zerbitzuan osatutako Instrukzio Epaitegian emana izan beharko da. Honi, banaketa-arauek bere judiziamendua esleitu beharko diote.

Behin atestatua jaso ondoren, falten judiziamenduaren guardia-zerbitzuan osatutako Epaitegiak egitateak delitutzat hartzen baditu, dagokion autoa emango du eta guardiako Epaitegi arruntera zuzenduko du gaia.

Bestalde, Epaitegiak egitateak faltatzat hartzen baditu, Prozedura Kriminalaren Legeko 963. artikuluen arabera, falta-judizioa bideratuko da. Behin, berehalako epaiketa egitea ahalegindu denean baina bere bideraketa ezinezkoa izanik, banaketa-arauek, judiziamendua, falten judiziamenduaren guardia funtzioen atestatua jaso zuen Epaitegi berdinari dagokiola ikusi beharko dute, Prozedura Kriminalaren Legeko 965.1,2. artikuluan ezartzen den epean epaiketa burutu beharko duelarik.

2.KalTEDUNAK zuzenean guardia Epaitegi arruntean aurkeztutako salaketa dagoenean edo egitatetak beste bide batetik ezagutzen dituztenean, eta aipatutako Epaitegiak falta-judizioa hasteko agintzen badu, falten judiziamenduaren guardia zerbitzuan eratutako Instrukzio Epaitegiari premiaz bidaliko dio prozesua, zeinek aurreko ataleko azken parrafoan adierazitakoaren arabera jokatu beharko duen.

3.Auzitegien Gobernu-Organoei buruzko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko 1/2000 Erregelamenduaren 86 d) artikulua ezarritakoarekin adostasunez, Epaille Dekanoak premiazko izaeraz, Guardiako Epaitegi arruntaren eta Falten Judiziamendurako Guardiako Epaitegiaren arteko banaketa-arauen erabilerari buruzko gaiei irtenbidea aurkituko die.

Bosgarren.- Zazpi edo gutxiagoko Instrukzio Epaitegi edo bi edo gehiagoko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegidun Barruti judizialean falta-judizioak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduko 48, 53, 55 eta 57. artikuluetan aipatzen diren barruti judizialean, banaketa-arauek Zigor-arloko Kodeko 617 edo 620. artikuluetako falten ezagutza esleitu beharko dute, beti ere, ofenditua, Kode berdinen 153. artikulua jasotako edozein pertsona izanik eta ondorengo irizpideen eraginpean egonik:

1.Guardiako Epaitegiak Prozedura Kriminalaren Legeko 963.1 artikulua ezarritakoaren babespean falta-

judizioa hasten duenean, Jardun Judizialen Alderdi Osagarriari buruzko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduaren 58. artikuluan aurreikusitakoarekin ados, guardia-zerbitzuan dagokion epaiketa burutzera ekingo dio.

2. Behin guardia-zerbitzuan zehar epaiketa egitea ahalegindu denean baina bere bideraketa ezinezkoa izanik, banaketa-arauek, judiziamendua, falten judiziamenduaren guardia funtzioen atestatua jaso zuen Epaitegi berdinari dagokiola ikusi beharko dute, Prozedura Kriminalaren Legeko 965.1,2. artikuluan ezartzen den epean epaiketa burutu beharko duelarik.

Seigarren.- Etxeko Indarkeriaren Erregistro Informatikoak.

1.- Dekanotza bakoitzean Etxeko Indarkeriaren Erregistro Informatizatu bat egongo da, non Zigor Kodeko 153. artikuluan adierazitako pertsonen aurka burututako zigor-arloko delitu edo falten prozesuetatik bildutako ondorengo datuak idatziko diren:

a) Instrukzio honekin adostasunez, etxeko indarkeriaren gainean onesten diren banaketa-arau berezien babespean egindako banaketa guztiak. Horretarako, Banaketa-Bulegoak Etxeko Indarkeria Erregistroari, aipatutako banaketa bakoitza jakinarazi beharko dio.

b) Prozedura Kriminalaren Legearen 800.3 artikulua babespean, Instrukzio Epaitegiekin egindako judizio azkarren egun jartzeak.

c) Prozedura Kriminalaren Legearen 802. artikulua adostasunez, Zigor-arloko Epaitegiak emandako epai guztiak.

d) Kautelazko neurri eta biktimaren babeserako diren beste neurriek agintzen dituzten Instrukzio Epaitegiekin emandako ebazpen guztiak, hala nola hauen kentzea edo aldatzea, eta bere babespean eragina izan ditzazketen beste haiek, delituagatik egiten diren prozesuetan instrukzio fasean zehar edo bitartean emandakoak.

e) Prozedura Kriminalaren Legeko 801. artikulua babespean delituagatik egiten diren prozesuetan, Instrukzio Epaitegiekin akusazioarekin adostasunez emandako epai guztiak.

f) Zigor Kodeko 617 eta 620. artikuluetan tipifikatutako faltengatik egiten diren epaiketetan, Instrukzio Epaitegiekin emandako epai guztiak.

g) Zigor Kodeko 153. artikuluan adierazitako pertsonaren baten aurka burututako delituagatik epai bat gauzatzen denean, biktimaren segurtasunean eragina izan dezaketean Zigor-arloko Epaitegiekin eta Probintzia Auzitegiekin emandako epai guztiak. Prozedura Kriminalaren Legeko 801. artikulua babespean, Zigor-arloko Epaitegiak onesten epai bat ematen duenean, xedapen hau ere aplikagarria izango da.

h) Prozedura Kriminalaren Legeko 800. artikuluan Probintzia Auzitegiekin apelazio-errekursoetan emandako epai guztiak, hala nola Lege berdineko 976. artikulua apelazio-errekursoetan.

2.- Instrukzioko Epaitegiekin, Zigor-arloko Epaitegiekin eta Probintzia Auzitegiekin berehala igorriko dituzte Etxeko Indarkeria Erregistroa aurreko atalean zerrendatutako epaiak.

3.- Etxeko Indarkeria Erregistroak izaera pribatua izango du eta Instrukzio honen eraginetarako, zigor-arloko Epaitegi edo Auzitegiekin kontsultatu beharko dute. Halaber, edozein jurisdikzio-organok eta Fiskaltzak kontsultatu ahal izango dute. Kontsulta eskaera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak onartutako dagokion ofizio normalizatuaren igorpen bitartez egingo da kasu guztietan.

Edozein kasutan Erregistroko sarrera, Izaera Pertsonaleko Datu Babesaren abenduak 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin eta Jardun Judizialen Alderdi Osagarriari buruzko ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduko 85. artikulua egokitu beharko da.

4.- Dagokion Etxeko Indarkeria Erregistroa informazio igorpena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak onestuko dituen agiri normalizatuaren bidez egingo da.

5.- Justizia Auzitegi Nagusien Gobernu Salek, aurreko hiru ataletan adierazitakoarekin adostasunez, dagokien Etxeko Indarkeria Erregistroen sorrera zainduko dute eta Prozedura Kriminalaren Legearen erreforma partzialari buruzko urriak 24ko 38/2002 Lege indarrean sartuz geroztik hilabete bateko epean,

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia jakinaren gainean jarri beharko dute.

6.- Erregistro informatizatu ezberdinen artean homogeneousutasuna eta komunikazioa errazteko asmoz, hala nola, kasua denean, organo judizialean dauden gestio prozel sistema informatikoetako bere integrazioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkurak, Informatika Judizialaren Komisioaren proposamenaz, erregistro hauek bildu beharko dituzten homogeneousutasun irizpideak eta funtzional eta segurtasun betebeharrak xedatuko ditu.

Zazpigarren.- Zigor-arloko eta penaleko jurisdikzioen arteko koordinaketa.

Gobernu Salek, etxeko indarkeriaren esparruko Zigor-arloko eta Zibileko Jurisdikzioak koordinatzeko beharrezko irizpideak onetsiko dituzte.

Zortzigarren.- Lankidetzaren protokoloa.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ekainak 7ko 5/1995 Erregelamenduaren 47.4 artikulua babespean ezartzen diren lankidetzaren protokoloak, etxeko indarkeriaren esparru zehatzera zuzendu ahal izango dira eta hauetan, gizarte zerbitzuen edo hiritarren osasunaren ardura duten organismo publikoak parte hartu ahal izango dute.

Bederatzigarren.- Bere aplikazioaren berrikustapena.

2003ko otsailaren 26ko data duen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurako Hitzarmenaren Bigarren Xedapen Gehigarriari buruzko berrikustapena, berau guardia-zerbitzuari buruzko 5/1995 Erregelamendua aldatzen duena, Instrukzio honetako aplikaziora ere zabalduko da.

Hamargarren.- Hedapena eta argitalpena.

Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakariari eta Epailen Dekanoari jakinarazi bekie eta "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta Datuen Babes Bulegoari jakinarazi ekin bekie.

Hamaikagarren.- Indarrean sartzea.

Instrukzio hau, "Estatuko Aldizkari Ofizialean" bere argitalpenetik hurrengo egunean indarrean sartuko da.